

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ELORRIKO UDALAREN 2019KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den azaroaren 18an Elorrioko Udalaren kudeaketa ekonomikoaren eta finantzarioaren fiskalizazio txostena.

HKEEk **aldeko iritzia** eman du Udalaren Kontu Orokorrari dagokionez, nahiz Udalaren Diruzaintzako Geldikina 56 mila euro murriztuko luketen kontabilitateko doikuntzak antzeman diren eta bigarren mailako sarearen kudeaketa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari lagatzeko hitzarmenetik eratorritako inbertsio-konpromisoen kontuetako informaziorik jaso ez den.

Halaber, txostenak adierazi du Udalaren kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, **2019an** ekitaldi horretarako ezarritako **aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau, zorraren helburu eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla.**

Fiskalizatutako Kontu Orokorretik eratorritako **finantza-egoera** aztertzen du txostenak, eta azpimarratu du eragiketa arrunten egiturari eutsi zaiola eta sortutako aurrezki-maila hobetu dela, zerbitzuen kostuen igoera zerga itunduen bilketan parte hartzeagatiko diru-sarrerekin (Udalkutxa) konpentsatu baita. Gastu orokorretarako geldikina, 2019ko abenduaren 31n, diru-sarrera arrunten % 28,9 zen, eta zorpetzea gainditzen du. Bestalde, eta COVID-19aren ondorioei dagokienez, HKEEk adierazi du Udalkutxaren diru-sarrerak murriztea izan dela 2020ko Kontuetan aurreikusitako eragin nagusia, nahiz eta Udalaren egoera osasuntsuak, ustez, krisi honen ondorioak arintzea ahalbidetuko duen.

Udalak **zuzentasunez bete du** bere jardura ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen lege-araudia, nahiz unean uneko akatsak antzeman diren (kontratu bat zuzenean esleitzea, beste bat indarraldia gaindituta luzatzea, gastu-konpromisoa dagokion aurrekontu-esleipena aldeztu aurretik onartu gabe).